

## OSOKO BILKURA

### HERNANIKO UDALAK 2026KO OTSAILAREN 24AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

**ALKATEA:**

*Xabier Lertxundi Asteasuinzarra*

**ALKATEORDEAK:**

*Itsaso Lekuona Legorburu  
Patxi Ibaguren Etxeberria  
Ainara Atorrasagasti Urizar  
Aitor Lukas Solano*

**ZINEGOTZIAK:**

*Axier Mingo Arruabarrena  
Amaia Miñer Canflanca  
Aitor Huizi Izagirre  
Urko Lazkoz Fernandes  
Oier Agirresarobe Lizaso  
Kistiñe Rodríguez Polaina  
Andoni Amonarraiz Gómez  
José Antonio Cuesta Solé  
Blanca Alberro Aranzasti  
Mikel Gurutzeaga Zubillaga  
Ismael Gancheñui Gonzalez  
Ricardo Crespo Rubio  
Maria Jesus Ruiz Ochoa  
Jaione Aristregi Cao  
Lurdes López Gorrotxategi*

**IDAZKARIA:**

*Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa*

**KONTU-HARTZAILEA:**

*Aitor Sarasola Salaberria*

*2026eko otsailaren 24an osoko bilkura egin da udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bileran Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.*

**Gai zerrenda:**

1. 2026-01-27KO OSOKO BILKURAKO 01-2026 AKTA ONARTZEA
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR0116 DEKRETUTIK 2026DEKR0359 DEKRETURA.
3. BERRIEMATEA. LIKIDAZIO DEKRETUAK: HERNANIKO UDALA ETA EREÑOTZU TOKI ENTITATE TXIKIA
4. BERRIEMATEA. 2025 URTEKO KONTUHARTZAILEAREN ERAGOZPEN OHARRAK.
5. 2026-2027 IKASTURTERAKO TASEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.
6. 2026-2027 IKASTURTERAKO PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA
7. URUMEA IKASTOLAREKIN 2026AN ZUZENEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA.
8. HERNANIKO (HM) KA.03.3 JARDUKETAREN XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA
9. ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA "MIGRATZAILEEN EZOHIKO ERREGULARIZAZIOAREN ALDEKO MOZIOA"
10. GALDERA ETA ESKARIAK

#### 1. 2026-01-27KO OSOKO BILKURAKO 01-2026 AKTA ONARTZEA

**Alkatea;** Arratsalde on. Seiak badira eta honekin otsaileko plenoari hasiera emango diogu. Hasira modu ez-ohiko batean egin nahiko nuke, azken hilabeteetan ez, baina urte askotan horko aulki batean Miren Lujanbio gurekin egon baita pleno guztietan urte askotan zehar. Ez plenoetan bakarrik, garai bat ere egon baitzen urte askotan

batzorde guztietan astero-astero gurekin egoten zena beti proposamenak ekartzen. Aurreko astean utzi gintuen eta beno, oroitzapen bat hemendik, hainbeste pleno bizi izan ditugun pertsonari hemendik ere oroimen mezu bat eta elkartasuna bere familiari. Beraiei zuzenean adierazi genien, baina hemendik ere nolabait kontutan izatea bera ere.

Hau esanda, hasiera emango diogu otsaileko plenoari. Aurreko akta daukagu onartzeko. Aktaz zerbait aipatzeko? Ados zaudete? Ez

## **2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR0116 DEKRETUTIK 2026DEKR0359 DEKRETURA.**

**Alkatea;** Bigarren puntura pasako gara, beraz. Dekretuen berri ematea da. Hilabetero ekartzen dugun bezala, 2026-116 dekretu zenbakitik 2026-359 dekretu zenbakira. Zerrenda pasa zaizue, zuen eskura jarri da beti bezala eta ez dakit dekreturen baten inguruan galderarik edo zerbait ba ote dagoen. Ez badago ezer, aurrera.

## **3. BERRIEMATEA. LIKIDAZIO DEKRETUAK: HERNANIKO UDALA ETA EREÑOTZU TOKI ENTITATE TXIKIA**

**Alkatea;** Hirugarren puntua berri emate bat da. Likidazio dekretuak egin dira azken asteetan eta horien berri emate bat da, otsailaren 19ko Antolakuntza Batzordean kontu hartzaileak berri emate hau eta informazio guztia eman zuen. Laburbiltzearen, aipatu Foru Arauak esaten duen bezala, epealdi jakin batean finantza eta aurrekontuen inguruko berri emate bat edo informazioa eman behar da. Kasu honetan, 2025eko likidazioaren inguruko informazioa da eman dena. Esan, datu potoloenak aipatzeko, 2025ean, 2024arekin konparatuz, %17'2 gehiagoko gastua izan da. Eta gastu hau gehien bat dator inbertsioetan gehiago exekutatu delako. 2025eko aurrekontuan aurreikusi genuena baino gastu arrunt gutxiago edo txikiagoa izan da.

Hortaz, diru-sarreretan ere igoera bat izan da eta igoera hori %3'8koa izan da. Batetik, tasa eta zerga bidez gehiago jaso dugulako eta, bestetik, 2025ean aurreikusten zena baino gehiago jaso delako Foru Funtsetik. 795.000 € gehiago. Hau azken asteetan ere albisteetan Finantzen Kontseiluak ere berri eman duenean ere aipatu da, gehiago bildu dela eta, beraz, erakundeetara diru gehiago iritsi dela.

Orduan, aurreikusi gabe genituen sarrera hauek egiten dute gerakin bat izatea eta gerakin honek ahalbidetuko duena da inbertsiorako gaitasun handiago bat izatea. Gerakinari dagokionez eta hau izaten da datu bat beti ere interpretazio desberdinak egiten direna edo egin nahi izaten direna, datu orokorrean esan dezakegu 22.900.000 €-ko gerakina daukagula. Honek esan nahi du 22.900.000 € destinorik gabe daudela? Askotan esaten den bezala... Ez. Inondik inora ez. 22.900.000 €-tik 14 milioi jada badirelako hasita dauden edo hastear dauden proiektu eta egitasmoetarako. Hauen %60 2025ean jada hasita daude eta beste %40 orain, 2026an, hasiko dugu. Hor

kontu-hartzaileak ere kontingentziarako kopuru bat ere badu 22 milioi horietatik 2.900.000 € dela Galarretako sistema orokorra eta Galarreta 06 eremuaren garapenerako. Eta gero, gogoratu ere inbertsio funts bat ere badaukagula etorkizunera datozen inbertsioei aurre egiteko, 2.900.000 €-koa. Eta hor aurreikusten ditugu Landareko instalazioak berritzea eta baita hemen, Lizeagako eremuan lur-azpiko parking-a eta kultur ekipamendu berriarentzat. Hor badakizue orain dela urte batzuk edo ekitaldi batzuk inbertsio funts bat sortu genuela etorkizunerako gaitasun hori eduki ahal izateko.

Laburpen honekin zein den likidazioaren emaitza, nolabait ere, 2.200.000 €-ko positiboan bukatzen dugula 2025 urtea eta hau, esan bezala, etorkizunean etorriko diren inbertsioetan erabilgarri izango lirateke.

Ekitaldi honetan, aurreko plenoetan eta beste batzordeetan aipatu izan dugu, 2026 eta 2027ari begira egonkortasun legeak nolabait ere gastu araua indarrean jartzen digu. Honek nolabait ere behartzen gaitu gastu maila mantentzera. 2025ean eduki dugun gastu maila mantendu behar dugu 2026 eta 2027an, %3ko igoerarekin bakarrik. Hau da askotan aipatu dugun bezala, Espainiar Estatutik datorkigun egonkortasun legea.

Hori da pixka bat kontu-hartzaileak eman zituen azalpenen laburpen bat 2025eko aurrekontuaren likidazioari dagokionez. Ez dakit galderarik edo zerbait badagoen aipatzeko.

**Mikel Gurutzeaga:** Arratsalde on.

Galdetu nahi genuke diru erabilgarri horren kopuruagatik, 2,2 milioi horiengatik, gastu arauaren araudi horrekin jakin daiteke zenbat inbertitu daitekeen? Ez dakit osoa den edo gastu arauarekin ezingo den ezer inbertitu, edo dena... ez dakit, jakin badaiteke.

**Alkatea:** Bai, urtero egiten den prozedura izaten da. Orain likidazioaren berri ematen da eta gero aldaketa egiten da aurrekontuan, normalean apirila inguruan egiten duguna, gerakin hau txertatzeko. Kasu honetan gastu arauak mugatu egiten gaituzenez eta ez digunez uzten, hau hobeto landu behar dugun kontua da. Baina etorkizunean dauden inbertsio funts horri gehitzeko balio dezake gerakin positibo honek. Alegia, kultur ekipamendua eta lurrazpiko parking-a ere epe laburrean datozen inbertsio handiak dira eta egitasmo handiak dira, eta honek egiten duguna da inbertsio horiei eta egitasmo eta proiektu horiei erantzuteko gaitasun handiagoa eman. Honek ahalbidetzen duelako etorkizun batean Udalak eskatu beharko duen mailegua gutxiago izatea. Eta inbertsio funtsa orain dela ekitaldi batzuk sortu genuenean, helburu horrekin sortu genuen: pixkanaka-pixkanaka ere Udala

baldintza hobeagoetan jartzea horrelako proiektuei erantzun ahal izateko. Eta, kasu honetan, aztertu beharko duguna, hau berri emate bat da eta likidazioaren datuak dira, aurrekontuak berriz ere ondo aztertu eta ikusi beharko dugu ze aukera dauden. Baina hipotesietako eta aukera nagusienetako bat hori izan daiteke: etorkizuneko proiektu horiei erantzuteko erabiltzea.

### **OSOKO BILKURAN EGINDAKO BERRI EMATEA**

Gipuzkoako toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 64 artikulua xedatzen duen moduan, igarotako epealdiari dagokion finantza eta aurrekontuen arloko informazioaren berri ematen da.

- 2025eko aurrekontuaren likidazioa:
  - o 2026/367 Dekretua. Hernaniko Udalaren likidazioa.
  - o DK202605 Dekretua. Ereñotzu T.E.T.
- 2025eko batez besteko ordainketa epea hornitzaileei.  
Aurrekontu eta Finantza egonkortasunari 18.5 artikuluan xedatu bezala, hornitzaileen ordainketa epeari buruzko jarraipena eta Sektore Publikoaren kontratazioari buruzko 3/2011 Errege Dekretuak xedatzen duen 30 eguneko ordainketa epea betetzen dela ziurtatzeko. Udal honetako Antolaketa batzordean ere berri ematea burutu zen 2026ko Otsailaren 19an

#### **4. BERRIEMATEA. 2025 URTEKO KONTUHARTZAILEAREN ERAGOZPEN OHARRAK.**

**Alkatea;** Laugarren puntua da, hasieratik hasiko naiz, kontu-hartzaileak ere eragozpen-oharrak egiten ditu. Eragozpen-ohar hauek likidazioaren berri ematen denean eta aurrekontuen berri ematen denean, maiztasunez egiten dituen kontuak dira. Hemen bost daude, hiru pertsonalarekin zerikusia dutenak eta urtero ekartzen ditugunak: bat, udako udalekuetarako begiraleen kontratazioei dagokiena da, zeren begiraleen kontratazioak begirale hauek ez ditugu lanpostuen zerrendan sartuta, baina hemen apustua egiten da begirale hauek Udaletik kontratatzeke, eta orain dela urte batzuk ere kultur etxea eta liburutegia udan arratsaldeetan irekitzeko egin zen apustuagatik ere hor ere pertsonalak egon behar du lanean, bere horretan ez daude lanpostuen zerrendan jasota, baina zerbitzu hori ematen dugu. Eta horiek dira aipatzen direnak. Eta beste biak, bi kontrataziori dagokie. Bata landa guneko Bidez Bide garraio zerbitzuari dagokiona. 2025ean anpliazio txiki bat egin da espediente izapidetu gabe, baina jada 2026rako zuzendu da hori. Eta bestea jangela sozialeko catering zerbitzuari egina. Hori ere konpontze bidean gaude, baina zerbitzua eman behar da eta lehenesten duguna da jangela sozialeko zerbitzu hori eman ahal izatea.

Hau ere berri emate bat da, otsailaren 19ko batzordean ere nik baino zabalago azaldu zuen kontu-hartzaileak. Ez dakit honen inguruan badagoen zerbait aipatzeko. Ez badago ezer, aurrera egingo dugu.

### **OSOKO BILKURAN EGINDAKO BERRI EMATEA**

Udal honetako Kontu-hartzailea naizen aldetik, txosten hau egin dut, Gipuzkoako toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak IV. Tituluan jasotako kontu-hartze kontrola betez.

Alkateak ondoko EBAZPENAK eman ditu, kontuhartzailearen eragozpen oharrarekin:

DEKRETUA	EGINTZA
2025/1409	Biteri kultur etxean udako arratsaldeetan atezain lanak egiteko kontratazioa. Eragozpena, Antolakuntza-Pertsonal saileko arduradunaren txostena: lan estrukturalak direnez, plantilla organikoan eta lanpostuen zerrendan jaso behar dira.
2025/1504	Hernaniko udal liburutegia udako arratsaldeetan irekitzeko. Eragozpena, Antolakuntza-Pertsonal saileko arduradunaren txostena: lan estrukturalak direnez, plantilla organikoan eta lanpostuen zerrendan jaso behar dira.
2025/1680	Udaleku irekietarako begiraleen kontratazioa. Eragozpena, Antolakuntza-Pertsonal saileko arduradunaren txostena: lan estrukturalak direnez, plantilla organikoan eta lanpostuen zerrendan jaso behar dira.
2025/1811	Jangela sozialeko catering zerbitzua. Eragozpena, Kontuhartzailearen txostena: Kontratazio espedienterik gabe izapidetutako faktura onartzea. Hileroko zerbitzu jarraitua.
2026/0077	2025eko Landa guneko bidez-bide garraio zerbitzua (Behemendiren bidez). Eragozpena, Kontuhartzailearen txostena: Kontratazio espedienterik gabe izapidetutako faktura onartzea. 2026 urterako kontratazioa zuzen izapidetu da.

#### ARAUDI APLIKAGARRIA

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua: 67. artikulua-Legezketasunaren kontrolari buruzkoa-, eta 70. artikulua-eragozpen ohar edo ingerei buruzkoa.
- 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, III. Kapitulua, Gastu eta ordainketen gainean eginkizun kontu-hartzailea betetzeko prozedura.

#### ONDORIOA

Administrazio egintza legez ezarritako tramiteak jarraitu gabe hartu da, beraz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 70.3 eta 70.4 artikuluek zehazten duten bezala, Kontu-hartzaileak eragozpen-oharra egin du. Alkateak horri buruz ebatzi du (dekretuak onartu), beraz, Alkate-lehendakariak eragozpen-oharraren aurkako erabakia hartzen duenean, kontu-hartzailetzako organo honek txostena Udaltzaren osoko bilkurara igorri behar du, eta fiskalizazio organoari bidaltzen zaion urteko txostenean, eragozpen-oharren aurka hartu diren ebazpen eta erabakien berri eman.

Udal honetako Antolaketa batzordean ere berri ematea burutu zen 2026ko Otsailaren 19an

## 5. 2026-2027 IKASTURTERAKO TASEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

**Alkatea;** Bosgarren puntura pasako gara eta 2026-2027 ikasturteko taseen ordenantza-fiskala aldatzeko proposamena izango litzateke. Hemen ikasturteka funtzionatzen duten zerbitzuen tasez hitz egiten ari gara. Hemen sartzen dira Musika Eskola, Kantuz Musika Eskola, kultur saileko ikastaroak, kiroldegitik egiten diren ikastaroak, Udal Euskaltegia eta Ereñotzuk dituen ikastaro, haur-zaintza eta frontoiaren tasak dira. Proposatzen dena da azken urteetan jarraitu den irizpidearen arabera, KPIaren igoera aplikatzea, abenduko datuen arabera, %2'9ko igoera izan duena.

Hori da proposamena. Ereñotzuko Auzo Udalarekin ere landu da eta beraiek ere horrela proposatzen dute. Ez dakit zerbait dagoen esateko honen inguruan. Ez badago ezer, bozkatzera pasako gara.

2026-2027 ikasturterako taseen ordenantza fiskala aldatzeko proposamenaren aldeko botoak? **Aho-batez onartzen dira.**

### OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO EBAZPENA

Ekonomia sailak aurkeztutako txostenak kontuan hartuta.

Kontuan hartuta Antolaketa Batzordeak 2026ko otsailaren 12an aho batez emandako irizpena Horiek horrela **Hernaniko Osoko bilkurak aho batez erabaki du:**

**Lehena.-** Administrazio zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko taseen ordenantzaren eranskin hauek aldatzea, 2026-2027 ikasturteko aurrerako ondorioekin.

1.1 ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK  
2025-2026 ikasturteko tasei %2,9 igoera aplikatu.

#### 11.1.- "HERNANI" MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA 2026-2027 IKASTURTEA

Maila	Irakasgaia	Tasa ikasturte osokoa (€)
1	Hastapena	250,61€
2	Soinu-tresna (txalaparta izan ezik)	374,09 €
	Txalaparta	186,97 €
	Talde instrumentala edo abesbatza	74,75 €
	Panderoa	74,75 €
	Lengoaia Musikala	74,75€
	Musika Hezkuntza	37,40 €
3	Soinu-tresna	448,90 €
	Txalaparta	224,42 €

	Talde instrumentala edo abesbatza	93,53 €
	Musikaren teknika lagungarriak	448,90 €
4	Soinu-tresna	523,71 €
	Talde instrumentala edo abesbatza	93,53 €
	Musikaren teknika lagungarriak	523,71 €

Tarifak aplikatzeko arauak:

1. Ikastaroetan izen-ematea.

Ikastaroa behin hasita ikasle guztiek dagokien tasaren zenbateko osoa ordaindu beharko dute, egindako matrikularen arabera.

Ikastaroa hasi aurretik baja-eskaera aurkezten bada, matrikulatzeko unean ordaindutako tasaren kuotaren zatia itzuliko da, eta ordaindu gabe dagoen tasaren zatia baliogabetuko da.

2. Ordainketa modua.

Ikastaroen kuotak modu honetan ordainduko dira:

- % 34 matrikula egin aurretik.
- % 33 abenduaren hasieran.
- % 33 martxoaren hasieran.

Hasitako ikasturtean matrikulatzen den ikasleak zerbitzua hartzen hasi denetik egutegia bukatu arte dauden hilabete kopuruaren arabera proportzionalki ordainduko du ordaindu beharreko prezioa.

Ordainketa interesatuak adierazitako banku kontuaren bidez egingo da (beste ordainketa motak banan-banan aztertuko dira).

3. Ordaindu gabeko ordainagiriak.

Zatiren bat ordaindu gabe geratzen bada hura kobratu ahal izateko dagokion kobrantza espedientea izapidetuko da.

4. Itzulketak eta bajak.

Edozein ikastaro edo klasetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Salbuespen izan daitezke jarduera burutzea oztopatzen duten norberaren

gaixotasunak eta ikasturte erdia edo erdia baino gehiago luzatzen diren lan edo ikasketa arrazoiak.

Salbuespen hau Alkateak (edota Ogasun Zinegotzi Delegatuak) erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa izango da alegatutako gaixotasunaren ondorio den ezintasuna txosten (edota ziurtagiri) medikoaren bidez egiaztatzea, lan-egoera enpresaren txosten bidez egiaztatzea eta/edo ikasketa-egoera zentro ofizialaren txosten bidez egiaztatzea. Kasu horietan tasa hilabeteka hainbanatuko da ikastaroaren hasiera-dataren eta baja-dataren artean.

#### 5. Ustekabeko egoerak.

Ustekabeko gorabeheraren bat gertatuz gero, hala nola osasun-krisia, ikastaroen antolaketan aldaketak egon daitezke. Tasaren kudeaketari begira, tarifak aplikatzerakoan kontuan hartuko dira ondoko arau hauek:

- a) Zerbitzua edo klasea modu presentzian emateko aukerarik ez dagoenean eta on line ematen denean dagokion tasaren kuota % 25eko hobaria aplikatuko da.
- b) Aforoagatik eta halaberrez zerbitzua edo klasea presentziala eta on line denean tasaren % 100eko kuota kobratuko da.
- c) Udalak zerbitzua edo klasea, modu presentzian edota on line ematerik ez duenean, etenda egongo den epeari dagokion tasa zatia ez da kobratuko.
- d) Aforo mugagatik zerbitzua edo klase orduak murriztu behar badira (presentzialki edo on line, edo bietan) murrizketaren proportzio berean murriztuko da tasaren kuota.

#### 6. Murrizketak

Bizikidetzaren unitateko diru-sarrera eta ondarearen arabera, murrizketak jaso ahal izango dira. Murrizketa horien aplikazioa Tasa eta Prezio Publikoen salbuespenei eta murrizketei buruzko erregelamendua arautzen duen Ordenantza Fiskalaren arabera egingo da.

##### 11.1 KANTUZ MUSIKA ESKOLA 2026-2027 IKASTURTEA

Tarifa	271,35€
--------	---------

Tarifak aplikatzeko arauak:

##### 1. Ikastaroetan izen-ematea.

Ikastaroa behin hasita ikasle guztiak dagokien tasaren zenbateko osoa ordaindu beharko dute, egindako matrikularen arabera.

Ikastaroa hasi aurretik baja-eskaera aurkezten bada, matrikulatzeko unean ordaindutako tasaren kuotaren zatia itzuliko da, eta ordaindu gabe dagoen tasaren zatia baliogabetuko da.

##### 2. Ordainketa modua.

Ikastaroen kuotak modu honetan ordainduko dira:

- % 34 matrikula egin aurretik.
- % 33 abenduaren hasieran.

- % 33 martxoaren hasieran.

Hasitako ikasturtean matrikulatzen den ikasleak zerbitzua hartzen hasi denetik egutegia bukatu arte dauden hilabete kopuruaren arabera proportzionalki ordainduko du ordaindu beharreko prezioa.

Ordainketa interesatuak adierazitako banku kontuaren bidez egingo da (beste ordainketa motak banan-banan aztertuko dira).

3. Ordaindu gabeko erreziboak.

Zatiren bat ordaindu gabe geratzen bada hura kobratu ahal izateko dagokion kobrantza espedientea izapidetuko da.

4. Itzulketak eta bajak.

Edozein ikastaro edo klasetan baja emango dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Horren salbuespen izan daitezke jarduera burutzea oztopatzen duten norberaren gaixotasunak eta ikasturte erdia edo erdia baino gehiago luzatzen diren lan edo ikasketa arrazoiak.

Salbuespen hori alkateak (edota Ogasun Zinegotzi delegatuak) erabakiko du, eta, horretarako, ezinbestekoa izango da alegatutako gaixotasuna txosten medikoaren bidez egiaztatzea, lan-egoera enpresaren txosten bidez egiaztatzea eta/edo ikasketa-egoera zentro ofizialaren txosten bidez egiaztatzea.

Kasu horietan tasa hilabetea hainbanatuko da ikastaroaren hasiera-dataren eta baja-dataren artean.

5. Ustekabeko egoerak.

Ustekabeko gorabeheraren bat gertatuz gero, hala nola osasun-krisia, ikastaroen antolaketan aldaketak egon daitezke. Tasaren kudeaketari begira, tarifak aplikatzerakoan kontuan hartuko dira ondoko arau hauek:

- a) Zerbitzua edo klasea modu presentzian emateko aukerarik ez dagoenean eta on line ematen denean dagokion tasaren kuota % 25eko hobaria aplikatuko da.
- b) Aforoagatik eta halabeharrez zerbitzua edo klasea presentzian eta on line denean tasaren % 100eko kuota kobratuko da.
- c) Udalak zerbitzua edo klasea, modu presentzian edota on line ematerik ez duenean, etenda egongo den epeari dagokion tasa zatia ez da kobratuko.
- d) Aforo mugagatik zerbitzua edo klase orduak murriztu behar badira (presentzialki edo on line, edo bietan) murrizketaren proportzio berean murriztuko da tasaren kuota.

6. Murrizketak.

Bizikidetzaren unitateko diru-sarrera eta ondarearen arabera, murrizketak jaso ahal izango dira. Murrizketa horien aplikazioa Tasa eta Prezio Publikoen salbuespenei eta murrizketei buruzko erregelamendua arautzen duen Ordenantza Fiskalaren arabera egingo da.

## 12. KULTURA SAILEKO IKASTAROAK. 2026-2027 IKASTURTEA

Tarifak:

Helduak:	Tasa (€)
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 4 ordu	311,16
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 3 ordu	233,95

Ikasturte osoa: egun 1 astean, guztira 3 ordu	233,94
Ikasturte osoa: egun 1 astean, guztira 2,5 ordu	194,79
Ikasturte osoa: egun 1 astean, guztira 2 ordu	153,11
Ikasturte osoa: egun 1 astean, guztira 1,5 ordu	113,96
72 ordukoak	166,23
60 ordukoak	137,78
40 ordukoak	135,10
15 eta 30 ordu bitartekoak	91,47
15 ordu baino gutxiagoak	39,15
Haurrak (14 urte bitarte):	
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 3 ordu	150,80
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 2 ordu	102,12
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 1,5 ordu	76,00
15 eta 30 ordu bitartekoak	45,07

Tarifak aplikatzeko arauak:

1. Ikastaroetan izen-ematea.

Ikastaroa behin hasita ikasle guztiak dagokien tasaren zenbateko osoa ordaindu beharko dute, egindako matrikularen arabera.

Ikastaroa hasi aurretik baja-eskaera aurkezten bada, matrikulatzeko unean ordaindutako tasaren kuotaren zatia itzuliko da, eta ordaindu gabe dagoen tasaren zatia baliogabetuko da.

2. Ordainketa modua.

Ikastaroen kuotak modu honetan ordainduko dira:

- % 34 matrikula egin aurretik.

- % 33 abenduaren hasieran.

- % 33 martxoaren hasieran.

Hasitako ikasturtean matrikulatzen den ikasleak zerbitzua hartzen hasi denetik egutegia bukatu arte dauden hilabete kopuruaren arabera proportzionalki ordainduko du ordaindu beharreko prezioa.

Ordainketa interesatuak adierazitako banku kontuaren bidez egingo da (beste ordainketa motak banan-banan aztertuko dira).

3. Ordaindu gabeko erreziboak.

Zatiren bat ordaindu gabe geratzen bada hura kobratu ahal izateko dagokion kobrantza espedientea izapidetuko da.

4. Itzulketak eta bajak.

Edozein ikastaro edo klasetan baja emango dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Horren salbuespen izan daitezke jarduera burutzea oztopatzen duten norberaren gaixotasunak eta ikasturte erdia edo erdia baino gehiago luzatzen diren lan edo ikasketa arrazoiak.

Salbuespen hori alkateak (edota Ogasun Zinegotzi delegatuak) erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa izango da alegatutako gaixotasuna txosten medikoaren bidez egiaztatzea, lan-

egoera enpresaren txosten bidez egiaztatzea eta/edo ikasketa-egoera zentro ofizialaren txosten bidez egiaztatzea.

Kasu horietan tasa hilabeteka hainbanatuko da ikastaroaren hasiera-dataren eta baja-dataren artean.

Hala ere, baja eskaera bat jasotzen denean edo inskripzio kuoten itzulketa jasotzen denean, hutsik geratutako plaza besteren batek betetzeko aukerarik baldin badago, zuzenean onartu ahal izango da eskatutakoa, eskaeraren data kontuan hartu gabe, eta eskatzaileak ordainduko ditu ordezkioak ikastaroan matrikula egiten duen une zehatzera arteko kuota guztiak.

5. Ustekabeko egoerak.

Ustekabeko gorabeheraren bat gertatuz gero, hala nola osasun-krisia, ikastaroen antolaketan aldaketak egon daitezke. Tasaren kudeaketari begira, tarifak aplikatzerakoan kontuan hartuko dira ondoko arauak:

- a) Zerbitzua edo klasea modu presentzialean emateko aukerarik ez dagoenean eta on line ematen denean dagokion tasaren kuotan % 25eko hobaria aplikatuko da.
- b) Aforoagatik eta halabeharrez zerbitzua edo klasea presentziala eta on line denean tasaren % 100eko kuota kobratuko da.
- c) Udalak zerbitzua edo klasea, modu presentzialean edota on line ematerik ez duenean, etenda egongo den epeari dagokion tasa zatia ez da kobratuko.
- d) Aforo mugagatik zerbitzua edo klase orduak murriztu behar badira (presentzialki edo on line, edo bietan) murrizketaren proportzio berean murriztuko da tasaren kuota.

6. Murrizketak.

Bizikidetzaren unitateko diru-sarrera eta ondarearen arabera, murrizketak jaso ahal izango dira. Murrizketa horien aplikazioa Tasa eta Prezio Publikoen salbuespenei eta murrizketei buruzko erregelamendua arautzen duen Ordenantza Fiskalaren arabera egingo da.

**13. UDAL EUSKALTEGIAREN TASEN PROPOSAMENA 2026-2027 IKASTURTEA  
AURREZ AURREKO IKASTAROAK ETA AUTOIKASKUNTZA  
2026-2027 IKASTURTEAN APLIKATUKO DIREN TARIFAK:**

	Ikasturte osoa	Bigarren hiru hilabeteetan	Hirugarren hiru hilabeteetan
25 ordu astean	1.356,37	914,26	452,09
20 ordu astean	1.085,08	723,38	356,70
15 ordu astean	813,83	542,50	271,24
12 ordu astean	641,42	434,03	216,96
10 ordu astean	542,48	361,69	180,85
8 ordu astean	434,03	289,35	139,63
7 ordu eta erdi astean	406,86	271,24	144,67
6 ordu astean	325,36	216,86	108,45
5 ordu astean	271,24	180,79	90,39
4 ordu astean	216,86	144,57	72,33

Autoikaskuntza	542,48	361,69	180,85
Jardun bikoa	271,24	180,79	90,39

Beste modulu guztietako kostua 1,65 €/ordukoa izango da (ikasmateriala barne).

TARIFA APLIKATZEKO ARAUAK:

1.- Ikastaroa behin hasita ikasle guztiek dagokien tasaren zenbateko osoa ordaindu beharko dute, egindako matrikularen arabera.

Ikastaroa hasi aurretik baja-eskaera aurkezten bada, matrikulatzeko unean ordaindutako tasaren kuotaren zatia itzuliko da, eta ordaindu gabe dagoen tasaren zatia balio gabetuko da.

2.- Matrikula ordaintzea helbideratu egingo da; beraz, ikasleari kontu korrontea eskatuko zaio eta ordainketa honela egingo da:

2.1 Ikastaldi osoan matrikulatzen den ikasleari matrikula hiru zatitan kobratuko zaio, honako data hauetan:

1. Klaseak hasitakoan, urrian, % 33,3
2. Abenduan % 33,3
3. Otsailean % 33,3

2.2 Bigarren hiruhilekoan, urtarrilean, matrikulatzen den ikasleari matrikula bi zatitan kobratuko zaio, honako data hauetan:

1. Otsailean % 50
2. Apirilean % 50

2.3 Hirugarren hiruhilekoan, Aste Santuaren ondoren, matrikulatzen den ikasleari ordainketa bakar batean kobratuko zaio matrikula:

1. Apirilean edo klaseak hasitakoan: %100

3. Hurrengo ikasturterako aurrematrikula epean izen ematen duten ikasleei %5 murrizketa aplikatuko zaie izen eman duten ikastaroaren prezioa kontutan hartuta. Aipatutako murrizketa ondorengo ikasleei aplikatu aha izango zaie: ikasle arruntak eta autoikaskuntza ikastaroetan aurrematrikula egiten dutenei.

Murrizketa ez da aplikagarri izango C1 mailan matrikulatutako 16-18 urteko gazteei, hauek HABEk duen dirulaguntza lerro bati esker prezio murriztuagoa ordaintzen baitute.

Aipatutako murrizketa aplikatu ahal izateko Hernaniko Udal Euskaltegiak aurrematrikula egiteko epean izen eman duten ikasleak soilik izango dira onuradun. Epez kanpo egindako izen emateei ez zaie murrizketa aplikatuko eta izen emandako ikastaroko prezioa kobratuko zaie.

4.- Matrikularen itzulketa

Matrikula honako kasu hauetan itzuliko da:

- Gaixotasun arrazoiak.

1. Lehendabiziko astean ikasleak, norberaren gaixotasun bat dela eta, baja ematen badu, medikuaren egiaztagiri ofizialaren bidez frogatu behar du.
2. Norberaren gaixotasun larria ikasturte erdia baino iraupen luzeagokoa bada. Ezinbestekoa izango da medikuaren agiri bidez frogatzea alegatutako gaixotasuna. Salbuespen hau alkateak erabakiko du.

- Lan arrazoiak.

Ikasleren bat lanean hasten bada, enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko du. Enpresaren zigilua beharrezkoa izango da. Salbuespen hori alkateak erabakiko du.

- Euskaltegiaren funtzionamendutik eratorritako kasuak

1. Ikasleak nahi duen ordutegian talderik osatu ez bada eta beste ordutegi batean ezin badu.
2. Ikaslea maila batean hasi ondoren, beste maila batean egotea komeni zaiola konturatu bagara, eta ordutegi horretan dagokion mailako talderik ez badauka edota beste aukerak bazterten baditu, ordaindutakoa itzuli egingo zaio.

5.- Osasun krisia (COVID-19)

Ustekabeko gorabeheraren bat gertatuz gero, hala nola osasun-krisia (Covid-19), ikastaroen antolaketan aldaketak egon daitezke. Tasaren kudeaketari begira, tarifak aplikatzerakoan kontuan hartuko dira ondorengo arau hauek:

- 1.- Zerbitzua edo klasea presentzialki emateko aukerarik ez dagoenean eta on line ematen denean dagokion tasaren kuotan %25ko hobaria aplikatuko da.
- 2.- Aforoagatik eta halaberrez zerbitzua edo klasea presentziala eta on line denean tasaren %100eko kuota kobratuko da.
- 3.- Udalak zerbitzua edo klasea presentzialki edota on line ematerik ez duenean, etenda egongo den epeari dagokion tasaren zatia ez da kobratuko.
- 4.- Aforo mugagatik zerbitzua edo klase orduak murriztu behar badira (presentzialki edo on line, edo bietan) murrizketaren proportzio berean murriztuko da tasaren kuota.

6.- Dirulaguntzetarako eskubidea

Arrazoa edozein dela ere, ikasleak dirulaguntzetarako eskubidea izango du BAJA izan arren, baldin eta dirulaguntza eskuratzeko baldintzak betetzen baditu. Dirulaguntzetarako baldintzetako bat asistentzia da: Ikaslea matrikulatu denetik BAJA idatziz jakinarazi duen arteko epean izan duen asistentzia hartuko da aintzat dirulaguntza eskuratzeko.

16. HERNANIKO UDAL KIROLDEGIKO IKASTAROK. 2026-2027 IKASTURTEA

Erabiltzaileentzako zerbitzuak: 2026ko ekainaren 1etik aurrera. Hernaniko udal jolas igerilekua:

A) Erabiltzaileentzako zerbitzuak Hernaniko Udal kiroldegiko bazkideentzat: Kiroldegiko bazkideek eta Astigarragoek uda garaiko Hernaniko Udal Jolas Igerilekua erabiltzeagatik ordaindu beharreko gehigarria.

MOTA	BAZKIDEAK	EZ BAZKIDEAK
Familiarra	84,73	168,40
Banakakoa	56,08	110,87
Adingabea .	37,05	67,29

B) Hernaniko Udal Jolas Igerilekuko erabiltzaileentzako sarrerak.

18 urtez behekoa .	5,90
18 urtez behekoa 17:30etik aurrera	3,15
18 urtez gorakoa	8,70
18 urtez gorakoa 17:30etik aurrera	4,35
3 urtez behekoa	3,05
3 urtez behekoa 17:30etik aurrera	1,55

6 hilabetez behekoa	0,00
---------------------	------

C) Umeen taldeentzako eguneko sarrerek udal jolas igerilekuetan. Sartzen diren 10 hurreko, begirale bat dohainik.

HAUR KOPURUA	PREZIOA
11-20 ..	5,60
21-40	5,40
41-80	5,15
81etatik aurrera	5,10

*Haur kopurua Haur bakoitzeko taldean ordaindu beharrekoa*

\* Hernaniko udal kiroldegiko ikastaroak:

a) Hilabetekoak: 2026ko urritik 2027ko abuztura. Hilabeteko prezioa.

IKASTAROA	BAZKIDEAK	EZ BAZKIDEAK
Haurtxoak ur jarduerak, astean egun 1.	28,65	45,89
Haurtxoak ur jarduerak, astean 2 egun	57,41	91,88
Haurdunak ur jarduerak astean 2 egun	57,41	91,88
Hipopresiboak + luzaketak (erditu ondoren) egun 1	20,78	33,95
Hipopresiboak + luzaketak (erditu ondoren) 2 egun .	42,39	67,81
Haurdunak fitness aretoan egun 1	20,78	33,23

b) Hiruhilekoak: 2026ko urritik 2027ko ekainera. Hilabeteko prezioa.

IKASTAROA	BAZKIDEAK	EZ BAZKIDEAK
3-4 urte bitarteko haurrentzako ur jarduerak, astean egun 1	35,19	56,28
3-4 urte bitarteko haurrentzako ur jarduerak, astean 2 egun	69,30	112,62
5 urtetik gorako ur jarduerak, astean egun 1	18,77	30,04
5 urtetik gorako ur jarduerak, astean 2 egun	37,45	59,93
Hastapena (helduak), astean 2 egun	36,99	59,16
Osasuna hobetzeko bideratutako ur jarduerak astean egun 1	28,65	45,89
Osasuna hobetzeko bideratutako ur jarduerak astean 2 egun	57,41	91,88
Hastapena (helduak eta 65 urtetik gorakoak) astean 2 egun	36,99	59,16

c) 9 hilabetekoak: 2026ko urritik 2027ko ekainera. Hilabeteko prezioa bazkideak.

c.1. Ur jarduerak:

IKASTAROA	BAZKIDEAK	EZ BAZKIDEAK
3-4 urte bitarteko haurrentzako ur jarduerak, astean egun 1	35,19	56,28
5 urtetik gorako ur jarduerak, astean egun 1	18,77	30,04
5 urtetik gorako ur jarduerak, astean 2 egun	37,45	59,93
Mantentze ig., Aquagyma, astean egun 1	14,40	23,00
Mantentze. ig., Aquafitness eta konbinatua (uretan + fitness aretoan) astean 2 egun	28,65	45,89

Mantentze ig., Aquafitness eta konbinatua (uretan + fitness aretoan) astean 3 egun	42,29	67,70
55 urtetik gorako ur jarduerak, astean 2 egun	28,65	45,89
55 urtetik gorako ur jarduerak, astean 3 egun	42,29	67,70
65 urtetik gorakoentzako aquagyma, konbinatua (uretan + fitness aretoan) astean egun 1	14,40	23,00
65 urtetik gorakoentzako aquagyma, konbinatua (uretan + fitness aretoan) astean 2 egun	28,65	45,89
65 urtetik gorakoentzako aquagyma, konbinatua (uretan + fitness aretoan) astean 3 egun	42,29	67,70
Ur jarduera egokitua, astean egun 1	14,40	23,00
Ur jarduera egokitua, astean 2 egun	28,65	45,89

c.2. Fitness jarduerak:

IKASTAROA	BAZKIDEAK	EZ BAZKIDEAK
Astean egun 1 fitnessa (ziklo indoorra, zunba, Multifitnessa)	12,40	19,85
Astean 2 egun fitnessa (ziklo indoorra, zunba, Multifitnessa)	25,26	40,44
Astean 3 egun fitnessa (ziklo indoorra, zunba, Multifitnessa)	37,35	59,78
Indoor walking-a, Zirkuitu Entren., Konbinatua, Pilatesa, Body Pumba... (egun 1)	20,78	33,23
Indoor walking-a, Zirkuitu Entren., Konbinatua, Pilatesa, Body Pumb... (2 egun)	41,46	66,37
Korea, hipopresiboak (30 minutu)	10,44	16,66
Korea + luzaketak egun 1	20,78	33,23

c.3. Jarduera: 3. adina. Urte osoko prezioa:

3. adinekoentzako jarduera	68,73
Hartubol	66,67

d) Muskulazio programa

Muskulazio programa*	13,85
Muskulazio programaren kontrola	6,95

\*Erabiltzaile bakoitzaren lehen muskulazio programa doakoa izango da.

e) Udako jarduerak (2026ko ekaina, uztaila eta abuztua)

IKASTAROA	BAZKIDEAK	EZ BAZKIDEAK
Aerobika Multifitnessa, Ziklo indoorra, zunba 3 egun astean	37,45	59,95
I. walking-a, pilatesa, Body Pumba, TRX.... 2 egun astean	41,6	66,37
I. walking-a, pilatesa, Body Pumba, TRX.... 3 egun	62,66	100,27

astean		
+ 55 Martxan Jarri! (aire librean) 2 egun	40,44	66,47
Zirkuituak aire librean (12-15 urte/16-20 urte) 2 egun	40,44	66,47
3-4 urte bitarteko haurrentzako ur-jarduerak, astean 2 egun	70,38	112,62
3-4 urte bitarteko haurrentzako ur-jarduerak, astean 3 egun	105,47	168,80
3-4 urte bitarteko haurrentzako ur-jarduerak, astean 4 egun	140,66	225,09
5 urtetik gorako ur jarduerak, astean 4 egun	75,16	120,29
5 urtetik gorako ur jarduerak, astean 5 egun	93,95	149,35

Tarifak aplikatzeko araua:

1. Ikastaroetan izen-ematea.

Ikastaroa behin hasita ikasle guztiak dagokien tasaren zenbateko osoa ordaindu beharko dute, egindako matrikularen arabera.

2. Ordainketa modua.

Hilabeteko ikastaroak:

Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketa, txartelarekin, helbideratuta edo transferentzia bidez egin daiteke.

Transferentzia bidezko ordainketak Udalaren kontu korrontean egin behar dira, eta ordainagiriak kiroldagiko bulegoetan aurkeztu behar dira (e-maila: [kirola@hernani.eus](mailto:kirola@hernani.eus)).

Iraupen luzeko ikastaroak:

1. Hiru hilabeteko ikastaroak:

Ordainketa bakarra: Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketa, txartelarekin, helbideratuta edo transferentzia bidez egin daiteke.

Transferentzia bidezko ordainketak Udalaren kontu korrontean egin behar dira, eta ordainagiriak kiroldagiko bulegoetan aurkeztu behar dira (e-maila : [kirola@hernani.eus](mailto:kirola@hernani.eus)).

Zatikako ordainketa: Ordainketa aurrezki kutxa edo banketxeren batean helbideratu beharko da eta ikastaroari dagokion kuota hiru zatitan ordainduko da, zati bakoitzean hilabete bati dagokion kopurua.

2. Gainerako ikastaroak (urria-ekaina):

Iraupen luzeko ikastaroen kuotak modu hauetan ordain daitezke:

Ordainketa bakarra: Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketa, txartelarekin, helbideratuta edo transferentzia bidez egin daiteke.

Transferentzia bidezko ordainketak Udalaren kontu korrontean egin behar dira, eta ordainagiriak kiroldagiko bulegoetan aurkeztu behar dira (e-maila : [kirola@hernani.eus](mailto:kirola@hernani.eus)).

Izen ematea jarduera dagoeneko hasita dagoela egiten bada, dagokion zati proportzionala ordainduko da, alta egunaren arabera.

Zatikako ordainketa: Ikastaro guztietarako, oro har, ikastaroen ordainketak aurrezki

kutxa edo banketxeren batean helbideratu beharko dira, eta ikastaroak irauten duen hilabete kopuruaren adinako zatitan ordainduko dira kuotak.

Izen ematea jarduera dagoeneko hasita dagoela egiten bada, dagokion zati proportzionala ordainduko da, alta egunaren arabera.

Iraupen luzeko ikastaroetan izen ematea, ikastaro osorako dela ulertuko da, ordaintzeko aukeratutako modua edozein izanda ere; ondorioz, ordainketa-zati guztiak ordaindu behar dira, ikastarora joan ala ez kontuan izan gabe.

Ordaindu gabeko ordainagiriak. Zatiren bat ordaindu gabe geratzen bada hura kobratu ahal izateko espedienteak hasiko da. Eta, horrekin batera, zorretan dagoen bazkideak bazkide gisa dituen eskubide guztiak galduko ditu, hots, ezingo du ikastaroa egiten jarraitu eta ezingo ditu udalaren kirol instalazioen gainerako zerbitzuak erabili, ordaintzeko dagoen kuota edo kuotak ordaindu arte.

### 3. Itzulketak – Bajak.

#### 1. Kiroldegiko abonua:

Abonua indargabetzen denean, ez da dirurik itzuli edo konpentsatuko. Abonua indargabetzea Udal Kiroldegiaren arrazoiz gertatu denean baino ez da itzuliko edo konpentsatuko ordaindutakoa.

#### 2. Hilabeteko ikastaroak:

Behin ikastaroa hasita, ezin izango da baja eskatu ezta ordaindutako dirua itzuli ere.

Izen-ematearen % 100a itzuliko da baja eta itzulketak ikastaroaren hasiera baino lehen eskatzen denean, baldin eta istripuagatik edo gaixotasunagatik, lan edota ikasketa arrazoiak izan badira. Horretarako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

#### 3. Iraupen luzeko ikastaroak:

Hiru hilabeteko ikastaroetan, jarduera hasi eta aste batera, ezin izango da eskatu ez bajarik, ez ordaindutako diru kopuruaren itzulketarik.

Bederatzi hilabeteko ikastaroetan, jarduera hasi eta bi astera ezin izango da eskatu ez bajarik, ez ordaindutako diru kopuruaren itzulketarik.

Edozein ikastaro edo klasetan baja emango dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Horren salbuespen izan daitezke norberaren gaixotasun larriak eta lan edo ikasketa arrazoiak. Salbuespen hori alkateak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa izango da ikastaroan parte hartzea kaltegarritzat jotzen duen txosten medikoa aurkeztea, lan-egoera enpresaren txosten bidez egiaztatzea eta/edo ikasketa-egoera zentro ofizialaren txosten bidez egiaztatzea. Nolanahi ere, uretako ikastaroetako itxarote zerrendak iraupen mugatua izango du: hilabetekoa hiru hilabeteko ikastaroetan eta hiru hilekoa bederatzi hilabeteko ikastaroetan.

Kasu horietan tasa hilabetekoa hainbanatuko da ikastaroaren hasiera-dataren eta baja-dataren artean. Hala ere, baja eskaera bat jasotzen denean edo inskripzio kuoten itzulketak jasotzen denean, hutsik geratutako plaza besteren batek betetzeko aukerarik baldin badago, zuzenean onartu ahal izango da eskatutakoa, eskaeraren data kontuan hartu gabe, eta eskatzaileak ordainduko ditu ordezkioak ikastaroan matrikula egiten duen une zehatzera arteko kuota guztiak.

Hasitako ikasturtearen lehen hiruhilekoan matrikulatzen den ikasleak zerbitzua hartzen hasi denetik egutegia bukatu arte dauden hilabete kopuruaren arabera proportzionalki ordainduko du ordaindu beharreko prezioa.

Ikastaro osoa edo zatia indargabetzea ikastaroa antolatu duenaren arrazoiz gertatzen bada, izena emateagatik ordaindutakoa ikastaroa eten denetik gelditzen den denboraren proportzioan itzuliko da.

#### 4. Ustekabeko gorabeherak.

Ustekabeko gorabeheraren bat gertatuz gero, hala nola, osasun krisia, matxurak grebak edo bestelako ezusteko edo ezbeharren bat ikastaroen antolaketan aldaketak egon daitezke.

Tasaren kudeaketari begira, tarifak aplikatzerakoan kontuan hartuko dira ondoko arauak:

1. Zerbitzua edo klasea presentzialki emateko aukerarik ez dagoenean eta on line ematen denean dagokion tasaren kuotan % 25eko hobaria aplikatuko da.
2. Aforoagatik eta halabeharrez zerbitzua edo klasea presentziala eta on line denean tasaren % 100eko kuota kobratuko da.
3. Udalak zerbitzua edo klasea, presentzialki edota on line ematerik ez duenean, etenda egongo den epeari dagokion tasaren parte ez da kobratuko.
4. Aforo mugagatik zerbitzua edo klase orduak murriztu behar badira (presentzialki edo on line, edo bietan) murrizketaren proportzio berean murriztuko tasaren kuota.
5. Kirol zerbitzuko langileek greba egiten badute ez da dirua itzuliko.

#### 5. Udako ikastaro trinkoak

Ekainean ikastaro trinkoetan izen ematen duten erabiltzeei hilabeteko kuotan %25 murrizketa egingo zaie ordenantzan onartutako kopuruekiko.

#### 04. HERNANIKO UDAL KIROLDEGIA ZERBITZUAK ERABILTZEA

KIROLDEGIAN HAMABI HILABETEZ ABONATUTAKOEN KUOTAK (2026)	
Kirolari federatuak	20,88€

#### TASA KUDEATZEKO ARAUAK:

(...)

##### Kirolari federatuak

1. Denboraldiko abonua: irailaren 1etik ekainaren 22ra, pilota eta pala izan ezik, horiek uztailaren 31ra arte izango dute.
2. Kiroldegian aritzen diren klubeko jokalaria izan behar du, eta bere klubeko entrenamendu egunetan bakarrik sartu ahal izango da.
3. Klubak jarduera duen eremuetan baino ezin da sartu, eta ezin da inola ere kiroldegiko beste gune batzuetara sartu.

#### 21. EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIKO IKASTAROAK

##### Tarifak:

Helduak:	Tasa (€)
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 4 ordu	311,16
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 3 ordu	233,94
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 2 ordu	153,11
Ikasturte osoa: egun 1 astean, guztira 3 ordu	233,94
Ikasturte osoa: egun 1 astean, guztira 2,5 ordu	194,73
Ikasturte osoa: egun 1 astean, guztira 2 ordu	153,11
Ikasturte osoa: egun 1 astean, guztira 1,5 ordu	113,96
Ikasturte osoa: egun 1 astean, guztira ordu bat	77,43
72 ordukoak	166,23
60 ordukoak	137,78

40 ordukoak	135,10
15 eta 30 ordu bitartekoak	91,47
15 ordu baino gutxiagoak	39,15
Haurrak (14 urte bitarte):	
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 3 ordu	150,80
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 2 ordu	102,12
Ikasturte osoa: 2 egun astean, guztira 1,5 ordu	76,00
15 eta 30 ordu bitartekoak	45,07

Tarifak aplikatzeko arauak:

1. Izen-ematea.

Izen-ematea: irailean

Ikastaroan izena eman dutenak dagoen plaza kopurua baino gehiago badira, zozketa bidez esleituko dira plaza horiek.

2. Ordainketa.

Tarifaren ordainketa banku-helbideratze bitartez egingo da. Matrikula gauzatu ahal izateko beharrezkoa izango da kontu korrontearen IBAN zenbakia eta NAREN zenbakia aurkeztea.

Ikastaroen kuotak honela ordainduko dira:

- % 34 matrikula egitean
- % 33 abenduaren hasieran
- % 33 martxoaren hasieran

3. Matrikula egiteko.

Matrikula orriaren datu guztiak bete. Auzo Udalean entregatu, goian aipatutako epean. Murrizketak jasotzeko eskaera orri bidez egin beharko da Tasa eta Prezio Publikoen salbuespenei eta murrizketei buruzko erregelamendua arautzen duen Ordenantza Fiskalaren arabera.

4. Aurreko puntua betetzen ez bada, aurre izen-emateak ez du baliorik izango.

5. Ikastaroa hasiz gero ikasle guztiak egindako matrikularen arabera dagokien tarifa osoa ordaindu beharko dute. Edozein ikastaro edo klasetan baja emango dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko.

Horren salbuespen izan daitezke:

- Norberaren gaixotasun larriak, ikasturte erdia baino iraupen luzeagoak badira. Betiere medikuak jarduera hori egitea bere osasunarentzat kaltegarria dela adierazten duen egiaztagiri ofizial bat aurkeztu beharko da.
- Lanean hasi izana, betiere lana eman enpresaren zigilua duen egiaztagiri baten bidez jakinarazten bada xehetasun hori.

Salbuespen hauek Alkateak erabakiko ditu.

6. Epez kanpoko matrikulak

7. Ikasleak ikastaroa beranduago hasi behar badu -bere errua ez den arrazoiren bat tarteko-dagokion matrikula kopuruaren zati proportzionala ordainduko du.

8. Tarifa murrizketak : Bizikidetzaren unitateko diru-sarrera eta ondarearen arabera, murrizketak jaso ahal izango dira. Murrizketa horien aplikazioa Tasa eta Prezio Publikoen salbuespenei eta murrizketei buruzko erregelamendua arautzen duen Ordenantza Fiskalaren arabera egingo da.

9. Ikastaroen hizkuntza: Ikastaro guztiak euskaraz emango dira.

10. Ikastaro saioak bukatuta, erabilgarri egongo dira frontoiko aldagelak.

### 03 HAURZAINZA ZERBITZUA

Familia bereko	Hilean behin edo bitan	Hilean 3 edo gehiagotan	Ikasturte osoa*
1go haurrak	19,30€	51,45€	51,45€
2. haurrak	12,85€	38,58€	38,58€
3. haurrak	6,43€	25,72€	25,72€

Tarifak aplikatzeko arauak:

1. Ikasturte osorako izena ematen duten familiei, zerbitzua erabiltzeari utzi arren, ikasturte osoa kobratu da, salbuespen egoera hauetan izan ezik:

- a) Gurasoa langabezian geratzea.
- b) Epe luzeko haurraren osasun arazoren bat.

2. Irailetik hasita erabiltzaile finko bat egonez gero, zerbitzua aurrera ateratzeko konpromezua dago.

**Bigarrenena.-** Udal jabetza publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantzako 7. eranskineko 2025-2026 ikasturteko tasei %2,9ko iguera aplikatu hileko kuotan:

#### 07 EREÑOTZUKO ENTITATE TXIKIKO PILOTALEKUAREN ERABILERA

Ordua hartuta dutenentza, hilean (aldagelen eta futxen erabilera barne) 53,30€

Libre geratzen diren orduetan aldagelen eta dutxen erailera barne:

1. 4 pertsona arte 3,00€/pertsoneko
2. 5-12 pertsona artean 12,00€/aldiko
3. 12 pertsonatik gora 12,00€ + 1,00€ 12 pertsonatik gorako bakoitzeko

Argiarentzako fitxa bakoitza (ordu beteko iraupena) 3,00€

**Hirugarrena.-** Erabakia 30 egunez jendaurrean jartzea, erreklamazioak edo oharrak egin ahal izateko.

**Laugarrena.-** Hartutako erabakia jendaurrean egondako arauzko epean inolako erreklamazio edo oharrik egiten ez bada behin betiko bihurtuko da.

**Bostgarrena.-** Alkateari ahalmena ematea erabakiaren testua eta tributuak arautzen dituzten ordenantzak batera biltzeko, udalak onartutako aldaketa guztiak sartuz.

## 6. 2026-2027 IKASTURTERAKO PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA

**Alkatea;** Seigarren puntuak honekin du zerikusia. Tasak izan beharrean prezio publikoen ordenantza fiskala aldatzea izango litzateke. Kasu honetan, prezio publikoetan sartzen diren zerbitzuak dira: Haurreskolako jangela eta Jabetze Eskolak. Hemen egiten dugun proposamena da Haurreskolako jangelan KPIaren iguera

aplikatzea, %2'9koa, lehen esan dugun irizpideari jarraituz; eta Jabetze Eskoletan ere, azken urteetan egiten dugun moduan, orduko 1€-ko prezio publikoa mantentzea. Ez dakit honen inguruan zerbait badagoen aipatzeko. Bozkatzera pasako gara.

2026-2027 ikasturterako prezio publikoen ordenantza fiskala aldatzeko proposamenaren aldeko botoak? **Hau ere aho-batez onartzen da.**

### OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO EBAZPENA

Ekonomia sailak aurkeztutako txostenak kontuan hartuta

Kontuan hartu da Antolaketa eta ogasun batzordeak 2026ko otsailaren 12ko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela, Hernaniko Osoko bilkurak **AHO BATEZ erabaki du**

**LEHENA.- Zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoen ordenantzaren eranskin hauek aldatzea, 2026-2027 ikasturtetik aurrerako ondorioekin.**

1. ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK

2025-2026 ikasturteko tasei %2,9 igoera aplikatu

3. HAUR ESKOLA JANGELA 2026-2027

Tarifak

Kuotak	(€)
Bazkaria, hileko	86,64
Askaria, hilero	19,55
Bazkari 1	5,35
Askari 1	1,65
Bazkariaren hezitzailea hileko	112,26
Baskari 1 hezitzailea	6,43

Tarifak aplikatzeko arauak.

1. Zerbitzua eskatzen duena da prezio publiko hau ordaintzera behartuta dagoena.

2. Zerbitzua ikasturte osoan (irailetik uztaile) erabiltzen duten onuradunek hamaika ordainketa oso egin beharko dituzte, eta ordaindu beharreko kopurua diru-sarreraren taula aplikatzearen ondorioz kalkulatu da. Ordainketak hilerokoak izango dira, zerbitzua emateko urtero onartzen den eskola egutegiaren arabera.

Salbuespena: ezinbesteko arrazoiak direla-eta jangela erabiltzeari utzi behar izatea, eta behar bezala justifikatua egotea. Udalari dagokio erabakia hartzea. Oporretan egotea ez da ezinbesteko arrazoi. Hilabetea hasi baino lehen jakinarazi eta justifikatu beharko da.

3. Edozein aldaketa (jangela zerbitzua eskatu, ordutegia aldatu, baja eman) idatziz egin beharko da, udaletxeak horretarako dituen eskabide orriak betez eta behar bezala justifikatuz. Aldaketa horiek eskatzeko azken eguna hilabete bakoitzaren 25a izango da.

4. Egokitzapenen kasuan, egokitzapena 2 astekoa denez, epe hori ez da ordainaraziko. Epe hori bukatu ondoren denei zerbitzua ordaintzeko eskatuko zaie.

5. Jangelako kuotak, bai umeenak bai helduenak ere, murriztu ahal izango dira lan arazoak baldin badaude edo haurra gaixotzen bada. Horretarako medikuak betetako mediku-orria entregatu beharko da. Orri hauetariko bakoitzak aste baterako soilik balio du eta, beraz, haurra gaixo dagoen aste bakoitzeko orri bat entregatu beharko da. Murrizpena % 25ekoa izango da haurra gutxienez 5 egun jangela erabili gabe egon bada. % 50ekoa, bi astez joan ez bada eta % 75ekoa hiru astez joan ez bada. Medikua ziurtagiri hauek hurrengo hilabetea bukatu aurretik aurkeztu beharko dira, hilabete bakoitzaren 30a baino lehen. Behin data hori pasatzean, ez da murrizpena aplikatuko.

6. Tarifa ordaintzeko, plaza eskatzerakoan ezinbestez eman behar da kontu korrontearen zenbakia, eta zenbaki horren bitartez udaleko zerbitzu ekonomikoek dagokion tarifa kobratuko dute.

7. Jangela erabiltzeko zerbitzuaren eskaera, ordutegiaren aldaketa eta jangelan baja ematea, Udaletxean egin beharreko tramiteak dira, Hezkuntza Departamentuan edo Herritarren Harrera Zerbitzuan (HHZ). Berdin, medikuaren agiriak entregatzea ere.

#### 4. JABETZA ESKOLA. PRESTAKUNTZA IKASTAROAK 2026-2027

Tarifa. 1. Ordu bat: 1 €.

Tarifak aplikatzeko arauak.

*1. Matrikularen ordainketa matrikula egiteko epealdian egingo da, Udalaren kontu korrontean.*

### 7. URUMEA IKASTOLAREKIN 2026AN ZUZENKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA.

**Alkatea;** Zazpigarren puntua Urumea ikastolarekin 2026an zuzeneko diru-laguntza hitzarmena onartzea da eta Asierrek azalduko digu.

**Asier Mingo:** Labur-labur, batzordean azaldu genuen bezalaxe, Urumea ikastolarekin Lehen Hezkuntzako ikasleak naturara hurbiltzeko eta euskara gaitasuna indartzeko, curriculum proiektuko 'Euskara eta natura arrakalari aurre eginez' egitasmoa aurkeztu zuten eta egitasmo hau gauzatu ahal izateko diru-laguntza ematea da erabaki behar duguna.

Aipatu, 2026-2028ko diru-laguntzen plan estrategikoan bertan dauden bigarren eta laugarren lerro estrategikoarekin bat egiten duela eta horretan aipatzeagatik puntu batzuk, hezkuntza berrikuntza, hezkuntza egitasmoa, hezkidetzailleak izan daitezen, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea ere aipatzen da, eta baita ere Euskal Herritik kanpoko herritar etorri berriak euskarara hurbil daitezen sustapen hori egitea, erraztea eta pauso horiek ematen jarraitzea.

Aipatzea, baita ere, beste hitzarmen batzuekin bezala, diru-laguntzekin bezala, diru-laguntzaren %75 onartutakoan emango zaiela eta ikasturtea bukatzen denean %25 justifikazioarekin batera ordainduko zaiela. Hori da batzordean sakonago azaldu genuena, eman genituen arrazoiak eta nola egiten den hitzarmen hau eta zertarako, batez ere. Baina gaurkoan hemen laburxeago.

**Alkatea:** Eskerrik asko, Asier.

Honen inguruan ez dakit badagoen zerbait aipatzeko. Ez badago ezer, zuzenean bozkatzera pasako gara.

Urumea ikastolarekin 2026an zuzeneko diru-laguntza hitzarmena onartzearen aldeko botoak? **Aho-batez onartzen da.**

### **OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO EBAZPENA**

Hitzarmen honen xedea da URUMEA IKASTOLAK Lehen Hezkuntzako ikasleak naturara hurbiltzeko eta euskara gaitasuna indartzeko curriculum proiektuko EUSKARA ETA EUSKARA ARRAKALARI AURRE EGINAZ egitasmoa gauzatu ahal izateko dirulaguntza ematea.

Urumea Ikastolak egoera sozioekonomiko zaugarria duten familietako ikasle tasa oso handia du. Horren ondorioz, arazo handiak ditu eskolaz kanpo egitekoak diren curriculumeko proiektuak gauzatzeko, izan ere, familia horiek ezin diote horrek dakarren gastuari aurre egin.

Aurkeztu duten egitasmoa horietako bat da, hain zuzen ere, ikasleak naturarekin harremanetan jartzea helburua duena; honako helburuak ditu:

- Helburu zientifikoa: Ikasleek bertako animalia eta landareen ezagutza areagotzea, bertatik bertara naturarekin harremanetan; hau da, teoria eta praktika uztartuta.
- Helburu emozionala: Ikerketek diotenari jarraiki, ikasleak naturarekin harremanetan jartzea dakartzan onura emozionalez gozatzea.
- Hizkuntza helburua: Baserri eta landa eremuan, ikasleek, eskola-eremutik kanpo, ikasleen euskara modu natural eta atseginean entzun eta praktikatzeko aukera izatea; eta horrek dakarren hizkuntzarekiko atxikimendua areagotzea.

Ikastolak aurkeztu dituen zaugarritasun datuak aintzat hartua, erraz ulertzen da ikasle horiek direla naturarekin eta euskararekin harremanetan egoteko aukerarik txikiena dutenak, eta, aldi berean, premiarik handiena dutenak, hori horrela, proiektuari jarraipena bermatzeko 2025-26 ikasturterako hitzarmena sinatzea proposatu du Hezkuntza delegatuak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa: 10.000,- €

Kontuan hartu da herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2026ko otsailaren 05eko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela, Hernaniko Osoko bilkurak **AHO BATEZ erabaki du**

- 1.- Hitzarmena onar dezala eta alkateari sinatzeko ahalmena ematea.
- 2.- Dirulaguntza hitzarmenean jasota dagoen ordainketa moduan eta epeetan egingo da: Dirulaguntza onartutakoan %75eko ordainketa eta justifikazioa aurkeztutakoan %25a.
- 3.- 2026ko udal aurrekontuaren aldaketa tramitatzea, kreditu transferentzia bidez.  
Handituko den partida (berria): 1 1811.481.02.323.00 2026 (7884) DIRULAG.HITZARMENA.URUMEA IKASTETXEA.
- Gutxituko den partida: 1 1811.227.07.323.00 2026 (4517)
- 4.- Dirulaguntzen plan estrategikoa eta aurrekontuaren Diru-laguntza eranskina aldatzea.

### **8. HERNANIKO (HM) KA.03.3 JARDUKETAREN XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA**

**Alkatea;**Zortzigarren puntua Hernaniko Karobieta 03.3 jarduketaren xehetasun-azterlanari dagokio. Honi behin-betiko onarpema ematea eta Ainarak azalduko digu.

**Ainara Atorrasagasti:** Kaixo, arratsalde on.

Hernaniko Karobieta auzoan izendatuta dagoen K03.3 izena duen eremurako egindako xehetasun-azterlana da. Hobeto ulertzeko ze eremuz ari garen, Buxkando baserria den eremuko azterlana da. Eta gogoratzearen, hemen landu dena da, hasieran eraikigarritasuna bi bolumenetan planteatuta zegoen eta orain ekarritako xehetasun-azterlan honetan, dena bolumen batean planteatzen dute. Batzordean hasierako onarpena eman genion azaroan, dokumentua publiko jarri zen, ez da egon inongo kexarik edo alegaziorik, eta beraz, hona dakarkigu dokumentua, onartzeko.

**Alkatea:** Eskerrik asko, Ainara.

Ez dakit honen inguruan zerbait badagoen aipatzeko.

**Jaione Aristregi:** Kaixo, arratsalde on.

Batzordean gure taldeak promozio honen aurka bozkatu zuen. Hala ere, osoko bilkuran abstenitu egingo gara. Hori egiten dugu badakigulako Gobernu Talde honek bat egiten duela alokairu sozialeko etxebizitzaren inguruan guk dugun filosofiarekin. Era berean, badakigu sustapen hori lursail pribatuak direla eta Udalak ezin duela horretan eragin. Baina berriro esango dugu hori etxebizitza-politika txarren hamarkaden isla dela. Hernanin, ondare sailaren arabera, lursail urbanizagarri guztiak esku pribatuetan daude. Hori dela eta, Udal honek gutxi edo ezer gutxi eragin dezake etxebizitza-eredu sozialago batera aldatzeko.

**Alkatea:** Ez dakit beste norbaitek zerbait aipatu nahi duen. Ez badago beste ezer, zuzenean bozkatzera pasako gara.

Hernaniko Karobieta 03.3 jarduketaren xehetasun-azterlanari behin-betiko onarpena ematearen aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeak. Kontrako botoak? Ez dago kontrako botorik. Abstentzioak? Elkarrekin-Podemos udal taldearenak. Hortaz, onartuta gelditzen da puntua.

#### BOZKETA

	Kopurua	Izen-abizenak
<b>ALDE</b>	18	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.</li> <li>2. Itsaso Lekuona Legorburu.</li> <li>3. Patxi Iburguren Etxeberria.</li> <li>4. Ainara Atorrasagasti Urizar.</li> <li>5. Aitor Lukas Solano.</li> <li>6. Asier Mingo Arruabarrena.</li> <li>7. Amaia Miner Canflanca.</li> <li>8. Aitor Huizi Izagirre.</li> <li>9. Urko Lazkoz Fernandes.</li> <li>10. Oier Agirresarobe Lizaso.</li> <li>11. Miren Kistiñe Rodríguez Polaina.</li> <li>12. Andoni Amonarraiz Gómez.</li> </ol>

		13. José Antonio Cuesta Solé. 14. Blanca Alberro Aranzasti. 15. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. 16. Ismael Ganchegui Gonzalez. 17. Ricardo Crespo Rubio. 18. María Jesús Ruiz Ochoa
<b>KONTRA</b>		
<b>ABSTENTZIOAK</b>	<b>2</b>	1. Jaione Aristregui Cao. 2. Lurdes López Gorrotxategi.

### OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO EBAZPENA

Hernaniko Karobieta auzoko (HM) KA.03.3 Jarduketan, 2025eko uztailaren 24ean aurkeztu du Saramendi berri SLK Udalean Xehetasun Azterlana, Ibai Kerejeta Otxotorena Arkitektoak idatzia.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko azaroaren 20ean hasierako onarpena eman zion Saramendi SLK aurkeztutako (HM)KA.03.3 zuzkidura-jarduketako Xehetasun Azterlanari

Hernaniko udaleko web orrian argitaratu ziren onespeneren akordioa eta Xehetasun azterlanaren testu eta plano guztiak. Iragarkiak ere argitaratu dira GAOn (2026-01-07) eta egunkarietan (GARA, 2026-12-26, DV 2025-12-26, Berria 2026-12-26).

Jendaurreko epean ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu.

2026ko urtarrilaren 26ean Hegazkintza Zibileko idatzia erregistratu zen. Idatzi horren arabera kasu horretan ez da txostenik behar.

Ikusi dira espedientean dauden txostenak.

Kontuan hartu dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73, 89 eta 98 artikulua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua.

Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2026ko otsailaren 19eko bilkuran gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela, Hernaniko Osoko bilkurak **GEHIENGOZ erabaki du**

**LEHENA.-** Behin betiko onarpena ematea karobieta auzoko (HM) KA.03.3 Jarduketan Xehetasun Azterlanari, Saramendi berri SLK sustatzen duena. Dokumentua Ibai Kerejeta Otxotorena arkitektoak 2025eko uztailaren 24an idatzi du.

**BIGARRENA.-** Behin betiko onartutako dokumentuaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroa bidaltzea eta ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko onespenera emateko erabakiaren testu osoa eta Xehetasun Azterlanaren Hirigintzako Arauak argitaratzea. Iragarkian Dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroan jaso dela adieraziko da.

**HIRUGARRENA.-** Saramendi berri, SLri erabaki hau jakinaraztea.

## 9. ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA “MIGRATZAILEEN EZOHIKO ERREGULARIZAZIOAREN ALDEKO MOZIOA”

**Alkatea:** Mozioen puntura pasako gara. Kasu honetan, bederatzigarren puntuan mozio bat daukagu Elkarrekin-Podemos udal taldeak aurkeztu duena. Migratzaileen ez-ohiko erregularizazioaren aldeko mozioa da. Mozio hau udal talde desberdinen artean lantzen aritu da Bozeramaile Batzordean, baina hitza Elkarrekin-Podemosi pasako diot, adierazteko beraien mozioarekin ze erabaki hartzen duten.

**Lourdes López:** Bai, mozioa aurkeztuko dugu eta gero bozkatu egingo da.

(Mozioa).

**Alkatea:** Forma kontu bat: hau da Elkarrekin-Podemosen aurkeztu duen mozioa? Ez da hau, ezta?

**Itsaso Lekuona:** Hori mahai gainean utzi behar da eta hau irakurri duzu, ez?

**Alkatea:** Itxaron, formetan... Kontua da Elkarrekin-Podemosen aurkeztu duela mozio bat, Bozeramaileen Batzordea egin dugu eta testu desberdinekin aritu gara lantzen, atzo alternatibo bat landu zen eta orain irakurri duzuna alternatiboa da; ez da Elkarrekin-Podemosen mozioa, da mozio transakzionala edo ez dakit nola deitzen zaion. Denon artean adostu ez, baina udal talde desberdinen artean adostu duguna.

Orduan, gauzak formalki ondo egiteko, zuena mahai gainean uzten duzuela ulertzen dut.

**Lourdes Lopez:** Bai.

**Alkatea:** Gai-zerrendan zegoen Elkarrekin-Podemosen mozioa mahai gainean gelditzen da eta irakurri dena da atzo Bozeramaile Batzordean landu zena. Kokatzen gara gainontzeko bozeramaileak? Bai? Ados. Erronda irekiko dugu, orduan.

**Itsaso Lekuona:** Itxaron, ez du bukatu. Orain nik irakurriko dut.

**Alkatea:** Ados, irakurketa konpartitua da eta puntuak irakurtzen jarraituko du Itsasok.

**Itsaso Lekuona:** (Mozioa).

**Alkatea:** Orain bai, orain erronda irekiko dugu gainontzeko udal taldeek ere hitza hartzeko.

**Ricardo Crespo:** Arratsalde on, guztioi. Milesker.

Osoko bilkura hasi baino lehen Elkarrekin-Podemosi eskatu diogu mozioa bertan behera uzteko eta datorren hilabetera arte itxaroteko, adostasuna bilatze aldera. Izan ere, mozio hori, Batzar Nagusietan ñabardura txikiren batekin aurkezten ari dira, Batzar Nagusietan lantzen ari dira, eta adostasun hori bilatzen ari dira, eta uste dut hemen gauden alderdi guztiok ados gaudela gaiaren inguruan. Eta, gainera, ez da denboraren arabera aldatuko, baldin eta migratzaileen erregularizazio-prozesua luza badaiteke, ez dut uste hemendik datorren hilabetera berritasun handirik egongo. Beraz, gu abstenitu egingo gara, akordio hori bilatze aldera. Uste dut oso posible dela, mozio honi tarte handiagoa ematen bazaio.

**Mikel Gurutzeaga:** Ricardok komentatu duenaren gainean, harrituta gaude. Ez dugu ulertzen Hernaniko Elkarrekin-Podemosi zinegotziak hain tematuta egotea mozio honen testuarekin eta ez onartzea, adibidez, beraien alderdikideek inguruko bi Udaletan, Irun eta Ordizian besteak beste, alderdi guztiak adostutako bi testu alternatiboak hemen ez babestea.

Hemen gauden alderdi guztiok babesten dugu laster estatuko gobernuak indarrean jarriko duen atzerritarren ez-ohiko erregularizazio garrantzitsu hau. Beharrezkoa da. Baina ez dugu uste hemen izan dugun eta daukagun tira-bira honek ezertan lagunduko duenik haren prozesuan eta egoki burutzean.

Gure ustez, herrian nahasmena bakarrik sortuko da eta penagarria iruditzen zaigu.

Are eta gehiago, gertuko bi Udaletan, lehen esan bezala, adostasun osoa lortu denean gai garrantzitsu honen inguruan. Eta Ricardok esan duen moduan ere, Batzar Nagusietan hurrengo asteetan edo egunetan lortuko dena ere, pentsatzen dugu.

Hortaz, ados nago bertan behera uztearekin. Baina bestalde, azpimarratu nahi nuke Eusko Jaurlaritzak laguntza eta elkarlana eskaini diola prozesuaren hasieratik estatuko gobernuari. Eta esan beharra dugu, adibidez, ministro andereak erantzuna etsigarria izan duela gure ustez. Esanez, ez sartzeko beraien gaietan, eskumena beraiena dela eta kito.

Eusko Jaurlaritzak ere urtarrilean bertan atzerritarrentzat erabilgarri den informazio orri bat argitaratu du eta baita ere, denok dakizue, audientzia publikoan dagoela oraintxe aurkeztutako dekretuaren testua. Eta erakunde guztiak alderdi, elkarte, herritar guztiak daukatela ekarpenak eta alegazioak egiteko aukera. Eusko Jaurlaritza berehala jardun zen horretan.

Hortaz, testura itzuliz, seigarren puntuan, adibidez, esaten dena, esan beharra daukagu atzerritartasun legeari estatuko kongresuari dagokiola ardura; ez Eusko

Jaurlaritzari eta ezta Eusko Legebiltzarrari ere. Guk, alderdi bezala, nahiago genuke gure mugen jabe izatea. Baina ez gara. Espainia da gure mugen jabe. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak ez dauka zer esanik lege hau aldatzerakoan, atzerritartasun legearen kasuan. Ezta indargabetzerakoan ere.

Beraz, atzerritarren ez-ohiko erregularizazioaren alde gaude, baina mozio zehatz honetan gure zinegotzi gehienak abstenitu egingo gara.

**Alkatea:** Bale, eskerrik asko.

Ez dakit zuek mozia aurkeztu izanagatik edo zerbait aipatu nahi duzuen... Bestela bigarren erronda bat irekiko dut. Ez dakit EH Bildutik...

**Itsaso Lekuona:** Bai. Beno, hasteko esan eskertzen dela gai hau plenora ekartzea. Gogoratzen baduzue, osoko bilkura honek onartu zuen lege proposamen herrigile horren aldeko mozio bat eta orduan, berriz ere eskerrak ematea arrazakeriaren kontrako mugimenduari eta pertsona migratuen eskubideen aldekoiei.

Gu ere ados geunden beste erakundeetan adosten ari direlako beste testu bat eta guk ere hori lehenesten genuen, besteak beste, hain justu Eusko Jaurlaritzari erreferentzia egiten diolako. Eta EAJko bozeramaileak aipatu du, ez daukagula eskumenik migrazio gaietan. Eta hain justu horrexegatik guk esan nahi genuena zen migrazio politikak egiteko ere eskumenak nahi ditugula. Horregatik aldarrikatzen dugula burujabetza, baita ere, migrazio politikak egin ahal izateko, harrera herria izateko eta hobe bizitzeko herri honetan bizi garen guztiok eskubide berak izateko. Beraz, burujabetzaren aldeko aldarrikapen horrekin eta esanez, baita ere, udal gobernu bezala eta, nire kasuan, kulturartekotasun saileko zinegotzi delegatu bezala, saiatuko garela gaiari dagokion garrantzia ematen eta prozesua ahalik eta gehien errazten, abiatzen denean.

Eta hori esanda, Elkarrekin-Podemosekin adostu dugun bezala, gure aldeko bozka.

**Alkatea:** Eskerrik asko, Itsaso.

Bozkatzera pasako gara. Ez da Elkarrekin-Podemosek proposatutako hasierako mozia, baizik eta Bozeramaile Batzordearen ondoren gaur irakurri den testua da bozkatuko duguna. Orduan, irakurri dugun testuaren aldeko botoak? EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos udal taldeenak. Kontrako botoak? EAJko zinegotzi baten kontrako bozka. Eta abstentzioak? Euskal Sozialistak udal taldearenak eta EAJ udal taldeko 4 zinegotzirenak. Honekin, hortaz, **irakurritako proposamena onartua gelditzen da.**

**Bozketa**

	Kopurua	Izen-abizenak
<b>ALDE</b>	13	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.</li> <li>2. Itsaso Lekuona Legorburu.</li> <li>3. Patxi Iburguren Etxeberria.</li> <li>4. Ainara Atorrasagasti Urizar.</li> <li>5. Aitor Lukas Solano.</li> <li>6. Asier Mingo Arruabarrena.</li> <li>7. Amaia Miner Canflanca.</li> <li>8. Aitor Huizi Izagirre.</li> <li>9. Urko Lazkoz Fernandes.</li> <li>10. Oier Agirresarobe Lizaso.</li> <li>11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina.</li> <li>12. Jaione Aristregui Cao.</li> <li>13. Lurdes López Gorrotxategi.</li> </ol>
<b>KONTRA</b>	<b>1</b>	Blanca Alberro Aranzasti.
<b>ABSTENTZIOAK</b>	<b>6</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Andoni Amonarraiz Gómez.</li> <li>2. José Antonio Cuesta Solé.</li> <li>3. Mikel Gurutzeaga Zubillaga.</li> <li>4. Ismael Ganchegui Gonzalez.</li> <li>5. Ricardo Crespo Rubio.</li> <li>6. María Jesús Ruiz Ochoa</li> </ol>

## OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO MOZIOA

1 Berariazko babesa ematen dio migratzaileak erregularizatzeko ezohiko prozesuari, eta aitortzen du ezinbesteko neurria dela justizia sozialerako, giza duintasunerako eta oinarrizko eskubideak bermatzeko. Neurri honek 700 mila lagunek babestutako lege herri-ekimen bati erantzuten dio, gizarte-erakundeen, migratzaileen kolektiboen, sindikatuen eta giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeen eskari historikoari erantzunez.

2 Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta gainerako erakundeei eskatzen die prozesu hori ahalik eta azkarren eta eraginkortasunez garatzeko behar diren neurriak babestu eta bultzatzeko, izapide irisgarriak, gardenak, errazak eta segurtasun juridiko osokoak bermatuz.

3 Eskatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, beren eskumenen esparruan, migrazioen eta asiloaren eremuan lan egiten duten gizarte-erakundeekin batera, aktiboki parte har dezatela, errotzea egiaztatzea eta ziurtatzea erraztuz eskura dauden administrazio-tresnen bidez, eta erregularizazio-prozesuan benetan sartzen lagun dezatela.

4 Erakunde guztiei eskatzen die, pertsona migratuei arreta emateko zerbitzuak indartzeko eta pertsona hauen gizarteratzean laguntzen duten neurriak bultzatzeko, gizarte-kohesioan lagunduz.

5 Berariaz gaitzestea arrazakeria, xenofobia, gorroto-diskurtsoak eta migrazioa kriminalizatzeko edozein modu; giza eskubideen, berdintasunaren, kulturarteko bizikidetzaren eta hauren babesaren aldeko konpromisoa berretsiz.

6 Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari eskatzen die behar diren adostasunak bila ditzatela indarrean dagoen Atzeritartasun Legea indargabetzea edo aldatzea aztertzeko. Akordio hauek Eusko Jaurlaritzari, Estatuko Gobernuari, migrazioen arloan eskumena duten erakunde guztiei eta dagozkien toki-erakundeei jakinarazteko konpromisoa hartzen du udalak.

## 10. GALDERA ETA ESKARIAK

**Alkatea:** Honekin azken puntura pasako gara. Eskari eta galderen puntura. Ez dakit badagoen eskaera eta galderarik.

**Jaione Aristregi:** Labur-labur, otsailaren 13an Eusko Jaurlaritzan makro eolikoaren proiektua argitaratu da. Ikatzgañakoa dela uste dut. Hernaniko Udalari eragiten dioten bi txosten daude, eta jakin nahi genuke alegazioen bat egingo den, aztertu den, zein punturi eragiten dion... Informazioa nahi dugu.

**Alkatea:** Bai, orain dela, esan bezala, egun batzuk argitaratu da. Gure zerbitzu tekniko eta juridikoak publikatu den informazio hori buru-belarri horrekin ari dira lanean eta Hernaniko Udalak aurkeztuko ditu behar eta dagozkion alegazioak.

30 laneguneko epea da, epe hori hartuko da eta epearen barruan ere behar dituen alegazioak, noski, egingo ditu Hernaniko Udalak. Eta, gogorarazi, edozein eragile zein herritarrek ere epe horren barruan alegazioak egiteko modua badagoela eta Udalak ere baduela, txostenen bat edo beharko balitz edo norbaitek eskatuko balu, hori errazteko aukera baduela.

Baina bai, zerbitzu tekniko eta juridikoak horretan ari dira.

**Mikel Gurutzeaga:** Bai, urtarrileko osoko bilkurako gai baten inguruan eskaera bat egin nahi nioke alkate jaunari. Hain zuzen, Garbitanian sartzeko Oiartzungo Udalak egin zuen eskaeraren inguruan. Alkate jaunari eskatu nahi nioke osoko bilkuran egiten dituen baieztapenak benetako datuetan oinarritzea. Osoko bilkuran alkateari

adierazi nion ez zuela egia esan Oiartzuneko Udalak Garbitanian sartzeko egin zuen eskaeraren inguruan. Gaur baieztatu nahi nuke.

Hemen daukat Oiartzungo alkateak 2025eko abenduaren 10ean sinatutako dekretua, non eskatzen duen Oiartzungo Udala Garbitanian sartzeko nahia. Hortaz, argi dago ez zela egon Oiartzungo gure alderdiko zinegotzien adostasunik ezta aldeko botorik, eskaera honekiko, ez osoko bilkura ezta batzorde batean ere. Eta ez, ez da egia ere, alkateak aurreko osoko bilkuran esan zuena. EAjk Oiartzungo udal gobernuarekin sinatutako akordioan puntu bat hau zela, eta hori publikoki Oiartzungo EAjk adierazi duela. Hau aktan agertzen da.

Hemen daukadan bi alderdiok sinatutako azaroko akordioan, ez da inondik inora Garbitanian sartzea aipatzen.

Bestaldetik, esan beharra daukat aurreko ostegunean, otsailak 19, Oiartzunen egindako batzordera gaia eraman zela, zehazki Oiartzungo Udala Garbitaniaren kide izateko erabakia eta partizipazioen erosteta hainbat dokumentu teknikoren bermearekin eta dokumentazio hau aztertu bitartean, gure alderdiko zinegotziak abstenitu egin zirela batzorde horretan. Eta bihar dute, hain zuzen ere, Oiartzungo osoko bilkura, non gai hau ere zerrendan sartu den.

Eta, bukatzeko, adierazi nahi genuke ez dela lehenengo aldia alkateak berdintsu jokatzeko duela Hernani Burujabe ekimenari lotuta. Honek ez du zerikusirik Garbitaniarekin, baina aipatu nahi nuke. Hernani Burujabe ekimenari ustezko Gipuzkoako Foru Aldundiko babes politikoaren inguruan. Eta ziurtatu dezaket babes hori ez dela inolaz ere existitzen.

**Alkatea:** Bi gai aipatu dituzu. Lehenengotik hasiko naiz. Ari nintzen albiste bat bilatzen eta albiste bat bada Oiartzungo alkatea eta, hemen ikusten ari naiz, EAjko bozeramaileak, non aipatzen duten poligonoetako hondakinen bilketa eta kudeaketa Udalak berreskuratu eta optimizatzeko neurriak hartzea. Beste kontu bat da EAj eta Hernaniko EAj konturatu izana urteetan eduki duen diskurtsoak ez duela zentzurik izan eta bere alderdikide batek Garbitanian sartzearen alde egin zuela; baina bat-batean aldekotasun horretatik azken mugimendu hauetan abstentzio batera pasatzen dela. Eta horretan zentratzea.

Beraz, nik ez nuen zuzena ez den ezer esan. Albistearen hemen dago. Eta Oiartzungo Udalak argitaratu duen albiste bat da. Aipatzen du berreskuratzea eta berreskuratzeko formula desberdinak egon daitezkeela. Bueno, nolabait ere, berriz ere, aurrekoan esan nizuen kontu horretan zentratzeko nintzateke: berri on bat izate horretan, bakarrik min egiten dizuelako urteetako diskurtso hori zentzua galtzen zioan bezala,

galdu duelako, eta EAJko ordezkariak azken aldian agian ez du horrela adierazi, baina hemen dago Oiarzungo Udalak kanal ofizialetatik ateratakoa. Eta horri egiten diot nik erreferentzia.

Gero nahi duzu, eta hori bai ez dizudala onartuko, Mikel, esatea nik hemen gauzak esan izan ditudanean ez direla zuzenak... Akatsak izan ditzaket, baina benetakoak ez diren kontuak ez ditut esaten.

Hernani Burujaberen baitan dauden proiektuek jaso dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza. Jaso dute eta memoria ariketa bat egingo dugu baita ere, ikusteko EAJk izan dituen inkoherentziak ere. Proiektu bat bada transformazioaren gunea proiektua bada, non kritikak, hankaz gora jarri nahi izan zen... eta GFAREN eta Lanbideren diru-laguntza jaso eta orduko bozeramaileak inaugurazioan egon ziren. Euskal Sozialistak taldekoak eta EAJ taldekoak. Berriz ere konprobatzen delako, diskurtso bat erabiltzen duzuela eta praktikan zuen diskurtso askok ez dutela koherentziarik. Eta gero horri buelta ematea kosta egiten zaiela. Eta, gehiago esango dizut, ez didazu esango niri egiak edo gezurrak ez duzu aipatu, ez dakit aipatu ere egin dezakezun zuzenak ez diren kontuak esaten ditudala nik, EAJ denean hori egiten duena. EAJ denean bere adierazpenetan aipatzen dituen azken adierazpenetan 2025eko aurrekontuen konpromisoak ez garela betetzen ari, adibidez. Hori gezurra denean. Eta hori zuek gezurra esaten ari zaretenean.

Hortaz, esango dizuet, min egiten dizue Garbitaniak eredu publiko, jasangarri eta eredugarri bat izateak? Bai. Zorionez, martxan dago eta emaitza oso onak ematen ditu? Baita ere.

Ez dakit zerbait aipatzeko badagoen.

**Ricardo Crespo:** Bai, ez da aipamena egin izanagatik, nahiz eta aipatu nauzun, ez dakidan arren zertara etorri den, eztabaida EAJrekin baitzen. Baina tira, Euskal Sozialistak taldeko bozeramailea aipatu duzu eta kasu honetan ni naiz.

Lehenengo puntuarekiko gauza bat esan, Ikatzgañeko parke eolikoari buruz txostenak egingo direla edo alegazioak jarriko direla, ez dakit oraintxe bertan horren prozesua nola den, ez dakit batzorde batetik pasa behar diren alegazio horiek edo plenotik ere pasa behar al duten... suposatzen dut ezetz, epeei begiratuta, seguruenik ez dugu denborarik izango aldeztetik jakiteko eta aztertzeke, baina eskatuko nuke bai hori jorratzea beste alderdiekin batzorde batean edo email bidez. Ez dakit nola, baina jorratzea txosten hori edo behintzat alegazioak. Jakinaren gainean egoteko, batik bat.

**Alkatea:** Bai, buruz ari naiz eta nik uste dut beste erakundeei dagozkien proiektuen alegazioak plenotik ez dutela zertan pasa. Plenotik pasatzen ditugula, gure herrian daudenak eta gure egiten dizkiguten alegazioak; horien erantzunak. Baina, noski, alegazioak ditugunean pasako ditugu batzordera, ikusteko zeintzuk diren eta teknikariek eta juridikoez zer ikusi duten alegatu daitezkeen puntuak zeintzuk diren. Pasako ditugu.

Besterik ez badago, honekin bukatutzat emango dugu otsaileko plenoa eta martxoan elkartuko gara berriz.

*Hernanin 2026ko otsailaren 24an*

*Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin*

*O.E*

**HERNANIKO ALKATEA**

*Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.*

